

TALLER AIL: PLAN DE GESTIÓN Y PRESUPUESTOS COMO
HERRAMIENTAS DE GESTIÓN Y TRANSPARENCIA

KODEA

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Ekainak 12, 19 eta 26	IKASGELA/ TOKIA	Bilbo. IVAPeko egoitza (Errekalde zumarkalea, 18)
IRAUPENA	16 orduko ikastaro baten baliokidea da; horietatik 12 ordu aurrez aurrekoak izango dira, eta 4, ostera, lan praktikorako erabiliko dira.	ORDUTEGIA	09:00-13:00
MATRIKULA EPEA	Maiatzak 9	ONIRITZI EPEA	--
IKASLE KOPURUA	15 pertsona	HARTZAILEAK	Udal langile teknikariak, dagokien udaleko kudeaketa plana idazteko prozesua bideratzen interesatuta baldin badaude, udal aurrekontu nagusiei lotuz eta biak udaleko gardentasunaren irudi eta kudeaketa tresna bihurtuz.
HAUTATZE IRIZPIDEAK	--	LEHENTASUNA	Altua
IRAKASLEA	Roberto Otxandio Otxandio & Team Consulting	MATERIALA	Ikastaroari dagokion materiala eskuragarri egongo da
DISEINUA	EUDEL-FORUAK-IVAP	AZPIEGITURA	Ordenagailu eramangarria, proiektagailua, Internetarako sarbidea

ZER LORTU NAHI DA

Parte hartzaileak trebatzea, dagokien udalean kudeaketa plan propioa idazteko prozesua bideratzeko gai izan daitezen, udal aurrekontu nagusiei lotuz, biak udaleko gardentasunaren irudi eta kudeaketa tresna bihurtuz.

Urtean zehar garatu beharreko jarduera, ekintza, proiektu eta helburuak jasotzen dituen dokumentuari esaten zaio kudeaketa plana (horietarako aurrekontu esleipena beharrezkoa izan zein ez); bertan aipatu beharko dira, besteak beste, nori dagokion horiek garatzeko ardura, garatzeko erreferentziazko datak eta horietako bakoitzerako esleitutako aurrekontua, hala badagokio.

HELBURU
OROKORRAK

Udal bateko tokiko administrazioaren zuzendaritza programaren eta, horrenbestez, kudeaketa planaren adierazpenari aurrekontu orokor esaten zaio.

Kudeaketa planak eta aurrekontu orokorrek dagokien eginkizuna bete dezaten, kasuan kasuko ekitaldia hasi aurretik onetsi egin beharko dira, eta, horrez gain, herritarren parte hartzearekin prestatu beharko dira; edukia erakunde osoak ez ezik herritarrek ere erraz ulertzeko eta interpretatzeko moduan idatzita egon beharko da.

TALLER AIL: PLAN DE GESTIÓN Y PRESUPUESTOS COMO HERRAMIENTAS DE GESTIÓN Y TRANSPARENCIA

HELBURU ZEHATZAK

Udaleko kudeaketa plana eta udal aurrekontuak prestatzeko prozesuak dinamizatzeko gaitzea; plana eta aurrekontuak herritarren parte hartzearekin prestatu beharko dira, eta edukia erakunde osoak ez ezik herritarrek ere erraz ulertzeko eta interpretatzeko moduan idatzita egon beharko da.

GAITASUNAK

Prestakuntza jarduera bukatu ondoren, kudeaketa plan bat eta udal aurrekontuak prestatzeko prozesua diseinatzeko eta planifikatzeko gai izango da ikaslea, elkarri lotutakoak eta erakundeak ez ezik herritarrek ere erraz interpretatzeko modukoak.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

Aurrez aurreko ikastaroa
Aurrez aurreko saioetan, batetik, udalak berak kudeaketa plana prestatzeko beharra eta komenigarritasuna testuinguruan jarriko da, baita aurrekontu parte hartzaile eta argiak izatea ere; ondoren, aipatutako ezaugarriak izango dituen prozesu bat martxan jartzearen haritik, bertaratutakoak dituzten kezkei buruzko eztabaida egingo da. Horrez gain, horiek bultzatzeko beharrezko gaitasunak, tresnak eta trebetasunak emango dira.

1. SAIOA:

Helburua: Udal batek kudeaketa plan bat izatea beharrezkoa dela agerian uztea, hain zuzen ere udal aurrekontuei lotutakoa, eta herritarrek bi horiek prestatzen parte hartu izana; erakunde osoak ez ezik, edukia herritarrek ere erraz ulertu eta interpretatzeko moduan idatzita egon beharko da.

- Zergatia testuinguruan jartzea
- Ikasleek hausnarketa egitea kasuan kasuko udalaren kudeaketa moduz: premiak identifikatzen dira ala ez, planifikatu egiten da, kronogramak erabiltzen dira, arduradunak identifikatu egiten dira, jarraipena egiten da, etab.
- Ikasleek udaleko kudeaketa planaren prestaketa garatzean gerta daitezkeen oztopoak identifikatzen laguntzea, hortik abiatuta, ekintza estrategia bat diseinatu ahal izateko.
- Benchmarkinga Beste udal batzuetako kudeaketa planen hautaketa bat eskaintzea.

PROGRAMA

2. SAIOA:

Helburua: Zure udalerako behar bezalako kudeaketa plan pertsonalizatua ezartzeko oinarritzko prozesu bat diseinatzeko

- Ikasleei trebetasunak eta gaitasunak ematea, saioan bertan, dagokien udaleko kudeaketa plana prestatzeko prozesua abian jarri eta arrakastazosatzea diseinatzeko eta planifikatzeko. Aurreko saioan identifikatutako oztopoak gaingritzeko garatu beharrekoko ekintzak bereziki nabarmenduko dira, beharrezkoa izanez gero.

TALLER AIL: PLAN DE GESTIÓN Y PRESUPUESTOS COMO HERRAMIENTAS DE GESTIÓN Y TRANSPARENCIA

- B. Plana prestatzeko prozesuan erabiltzeko euskarri tresnak, gaitasunak eta trebetasunak eskaintzea ikasleei.

3. SAIOA:

Helburua: Udal aurrekontuak prestatzeko oinarritzko prozesua diseinatzea, herritarren parte hartzearekin egin ahal izango direnak, eta edukia erakunde osoak ez ezik herritarrek ere erraz ulertu eta interpretatzeko moduan idatzita egotea.

A. Ikasleei trebetasunak eta gaitasunak ematea, saioan bertan, udal aurrekontuak prestatzeko prozesua abian jarri eta arrakastaz osatzea diseinatzeke eta planifikatzeko. Aurreko saioan identifikatutako oztopoak gainditzeko garatu beharreko ekintzak bereziki nabarmenduko dira, beharrezkoa izanez gero.

B. Udal aurrekontuak prestatzeko prozesuan erabiltzeko euskarri tresnak, gaitasunak eta trebetasunak eskaintzea ikasleei.

Ikasleei aukera emango zaie batera jartzeko saio batean parte har dezaten, egindako diseinu eta plangintza lanak partekatu eta gainerako parte hartzaileen ekarpenekin aberastu ahal izateko.

EBALUAKETA

- **Ebaluazioaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokorrak eta bereziak bete direla bermatzea.
- **Ebaluazioak hauek hartuko ditu:** Udaleko kudeaketa plan propioa eta aurrekontu orokorrak prestatzeko prozesuaren diseinua, plangintza eta horien ondoriozko kronograma ere jasoko duen dokumentua egitea. Azken saioa bukatu ondoren, 15 eguneko tarte utziko da lana aurkezteko. Ikastaroa hasi eta plana entregatu arteko tarteetan, ikastaroko parte hartzaileek hizlariaren tutoretza jaso ahalko dute, posta elektronikoko bidez.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazioa inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

Bete beharreko baldintzak:

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

PREZIOA

170€ Agindua, 2007ko uztailaren 18koa, Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zerbitzuek betetzen dituzten jardueren prezio publikoak finkatzen dutena. (EHAA – 2007ko irailaren 5koa; 171zk.)